



MARIA LUISA OLALDE ITUARTE

Kale zaharrian euki eben *Kastillo* taberniagatik edota Oñatin egon zan lehenengo jolaslekua zabaldu ebelako ezagutuko dozue oñatiar askok emakume hau, baiña zenbatek ete dakitzue, gerra denporan, berak eta bere

anaiak Belgikara fan bihar izan ebeilla? Orain trankil bizi bada be, munduan zihar ibilttia tokau xako emakume honi. Kontu honeittaz eta bizimoduaren gorabeheraz barriketalditxo bat egin dogu berarekin.

-Nundik eta nora allegau ziñan Belgikara?

Bueno, gerria etorri zanian, gau batian hemendik igesi urten bihar izan geben familixa dana Bilbo aldera. Aittak han lan egitten eben eta dirua etxakun falta, baiña erostekorik ez eguen, Bilbo sitiauta eguelako. Horregatik, han be gauzia oso baltz jarri zanian, nere gurasuak pentsau ebein anaia eta ni periodikotan agerketan ziran kolonietara bialketia.

-Zenbat urte zeukatzuen orduan?

Hamar urte neukan, ni nintzan zaharrena, Jabierrek 7 urte zittuan eta Alfredo, artian oso txikiña zalako, aitta-amakin geratu zan Bilbon.

-Zuzenian fan ziñain Belgikara?

Ez, neska-mutiko mordua barkuan urten gebenian ezgekixen



nora fan bihar giñan. Enaiz akordaitten ze herritan, baiña lehenengo Frantzian egon giñan hiru bat hillabetian. Gero Belgikara eraman ginttuain ume


gehixago etozeillako. Liejan egon giñan, lehenengo koloniatan han be, baiña laister, gauzia luzerako zixoiala ikusi ebeñian, etxe partikularretara partiu ginttuain.

-Zure anaiarekin batera egon ziñan denporadanian?

Ez, Liejan separau giñan bakoitza familixa batera. Baiña, domekero juntaitten giñan alkarrekin bazkaitteko, ziudadelan.

-Ze bizimodu eruan zeben han?

Hasieran oso ondo, neri tokau xaten familixako aitta, nik tio esaten notzana, senadoria zan eta señorita baten moduan hazi ninduan. Kolejixuan be oso mimauta egon nintzan kanpotar bakarra nintzalako eta hango eskolak ezin nittualako jarraitu, josten, koziñaitten eta holakuak erakusten nostain.



GOZOKI DENDA

Kañe Barria, 7 OÑATI

- Poltsak
- Goxoki eta fruitu leiharrak
- Edozein ospakizunetarako enkarguak hartzen dira (ezkontza, bataiao...)



**ELKORO C. B.
KRISTALDEGIÁ**

San Lorenzo, 13 B
Lazarra, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06. OÑATI

**Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko leiho
eta pertsianak
P.V.C
Poliuretano
CLIMALIT**



-Ze hizkuntza berba egitten ebein?

Hemen euskaldunak moduan, han *waloiak* dagoz, baiña dana frantsezez egitten ebein. Nik be aguro ikasi neben. Baiña euskaria ahaztu xaten eta Bilbon ikasittako erdera apurra be bai.

-Zenbat denpora egin zeben han?

Sei urte egin nittuan etxetik kanpora. Nere anaia ni baiño apur bat lehenago etorri zan eta ni, aittak eta amak reklamau nindueñian, azkenengo geraketan ziran ume euskaldunakin etorri nintzan Cruz Rojakuak organizatutako trenian.

-Ordurako munduko bigarren gerria hasitta egongo zan...

Bai. Akordaitten naiz gau baten zubixak bonbardeaitten ikusi gebela eta hurrengo egunian ziudadelara igo gebela herrittar guztiak, tropa inglesak ziralakuan, saludaittera, baiña alemanak ziran. Eta han be gosetia etorri zan, baiña ez hemengua aiñakua kolejixuan jaten emuten oskueillako.

-Zela topau zeben herrixa bueltau ziñanian?



Etorri nintzanian konturatu nintzan gerra aurretik Santamainako gure etxian geukan dana kendu oskueilla; aittak aurretik *Garaiñian* lan egitten eben baiña politikia dala eta, bueltan, *Barrenzelaiñeko* zerran hasi bihar izan eben. Neretzat be bueltia nehiko gogorra izan zan, ze, etorri eta berihala ama hil xakun eta neu kargu egin bihar izan nintzan anaiarekin eta aittarekin. Dana dala, neu be, laister hasi nintzan lanian *Txaketuanian*, parientiak dira eta.


-Baiña *Kastillo* tabernia be euki zeben?

Bai, baiña hori *Kastilloneko* Joxe Beitiakin ezkondu eta gero jarri geben. Beranduago jolas-lekua be erei geben, Oñatiko lehenengua. Sasoi batian bixak batera eruaten nittuan nik, gizona Patagonian eguenian.

-Zer dala eta fan zan hara?

Ba, allegau zan notizia han geukan tio batzuk laguntza biharrian egozela eta nere gizona fan zan. Hasieran sei bat urte egin zittuan etorri barik eta gero bi urtetik behin etorten zan.

Liejako familixiarekin eta maistrarekin hartumunak izaten jarraitu dot urte askuan”



-Zeu be Argentinan egondakua zara ezta?

Bai, gizona hara eta hona hamabi urtian ibilli eta gero, halako baten gaixotuta etorri zan eta derrepentian hil zan; horregatik pentsau neben nik Patagoniara fatia, hango asuntuak konponketara.

-Ze zeukatzen han?

Ardixak geukan, 6000 ardi baiño gehixago. Baiña topau nittuen trabak eta hango bizimodu gogorra ikusitta, neure semerik paraje hareittan ikusterik enebelako gura, hango danari jare egin notzan.

-Harrazkero Oñati aldian ibilli zara?

Bueno, taberniarekin jarraitu neben harik eta jentiaen orduak aldaketan hasi ziran arte. Orduan tabernia itxi eta jolas-lekuarekin bakarrik geratu nintzan, neuretako lain emuten ebelako. Hala ta be, agostuan bakaziñuak hartzen nittuanian, lagunekin biaje luzeren bat egitten neben estranjerixara, eta orain be ixa urtero jarraiketan xaugu ohittura horri.

Jolas-lekura etorten ziran neska-mutikuak oraindiok be kalia, Marilu! saludaitten naue, baiña nik ez tittut gehixetan ezaguketan”

**URZELAI
DENDA**

Kale Barria, 26
OÑATI



JOSE RAMON
UGARTE ARREGI
Agentea

**Lloyd Adriatico
Seguru eta
Reaseguruen
CIA**

San Lorenzo, 58 1. esk
Tfnoa: 78 08 99 OÑATI

Laket

**Lurrindegia eta
apaindegia**

Lazarraga, 3 OÑATI